

Eiretarrak nazio-hizkuntzari 'agur' esateko bezperan

Gai mingarria, zinez, eiretarren nazio-hizkuntzarena. Gai funtsezkoa, ordea, euskaldunontzat; behinola Lluís Aracil-ek hemén aitortu zigunez, Eire-koaren itxura baitu gure hizkuntz arazoak: «lo siento por vosotros, pero el caso vasco se parece al irlandés desde el punto de vista socio-lingüístico».

Oso da interesgarria, beraz, J. Fishman-en aldizkariak berriki gai honi eskaini dion alea: «Language Planning in Ireland», in *International Journal of Sociology of Language*, 70. zenbakia, 1988.

Ahal duten euskaltzale guztiek aztertu behar lukete ikerlan hau. Eta ezinezkoa delako, hain zuzen, lanaren ekarpen nagusiak bederen azalduko ditugu; beti ere iturrira jotzeko gomendatuz.

Lan-biltzaile eta aurkeztzaile den Pádraig O Riagáin-en bi artikulua izan daitezke mamitsuenak. Eta hauek dira interesgarrienak alde batzutatik. Baina zinez da gogoangarria Hilary Tovel-en idazlana; honen bitartez ulertzen baita garbikienik agintaritzatik gaelikeraren suntsiera onar-erazteko mamitzen ari den azpilan maltzurra eta izkutua. Nazio-hizkuntza lurperatzeko erabakia hartua du jadanik; baina inork ez du argi-eta-garbi esan nahi.

Pádraig O Riagáin-en artikulua («Bilingualism in Ireland 1973-1983: an overview of national sociolinguistic surveys») zehazki egiten du azkeneko inkesten bilduma luze bat (23

orrialde); eta egoera guztiz txarra dela agertzen da nabarmen.

Guri dagokigunez, oso kontutan hartzekoa da Eire britanikoan («Eire Askatua» eratu aurretik, alegia) zegoen hizkuntz egoera; eiretarrak zein abiapuntutatik hasi ziren zehazki jakitea oso beharrezkoa baita. Hots, 1911ko Erroldan agertu zenez, garai hartan gaelikodun elebakarrak bukatuak ziren; eta elebidunak, % 18 besterik ez ziren. Gaeliko-ingeles elebidun horiek itsasertzeko bospasei eskualdetan bizi ziren, elkarrekiko lotura geografikorik gabe; miseria gorrian, ekonomiari dagokionez; eta Dublin-dik urrun.

Dublin-go gobernu berriaren ardatza, horretara, Eire Askatu berrian, hauxe izan zen: 'Gaeltacht' horietan hizkuntza biziari eustea. Eta honetarako, lehen lehenik, lanpostuak sortzea; gazteek ez baitzuten bertan lanik aurkitzen. Hots, lanpostu horietako zuzendariak ingelesdun hutsak izan ziren haseratik; lanpostu berrietarako, berriro ere, ingelesa beharrezkoa zelarrik; eta gaelikeraren ezagutza, berriz ... 'dispensable', Aracil-en hitzaz esateko.

'Galltacht'etan, berriz (letra bakar bat desberdin, kasu!) soluzio-bidea irakaskuntzan funtsatu zen: eskolan dena gaelikoz, 'immersion' hutsa, 'D' eredua ... Baina hizkuntzaz hitz egiteko gai ziren irakasleak, urri: % 9 bakarrik. Testurik ez zegoen, hizkuntza batu gabe zegoen, ortofonia edo fonologia batua ez zegoen prest (Murchú-ren proiektu fonologikoa orain

dela hogeitatu bat urte arte ez zen onartu ...); eta, hitz batez, oso egoera txarrean abiatu zen hizkuntza, eskolaren alorrean. Hala ere, gogor ekin zioten lehengo urteetan, eta 1940/1941 ikastaroan, ikasleetako % 12ak ikasten zuen gaelikeraz; beste % 43k 'zerbait' bederen nazio-hizkuntzaz hartzen zuelarik.

Hots, horixe izan zen gailurra. Geroztik behera joan da dena (% 5ek bakarrik 1980/1981 ikastaroan); eta gaur egun arrazoinik ez dago berriro gauzak gorantz abiatuko direla pentsatzeko.

Bigarren mailako ikasgutan, jakina, okerrago. Hor haseratik beretik somatu zen beherako joera.

Ezaguera maila oso apala da gaur (% 3k daukate gaelikodun zaharren maila; beste % 10k elkarrizketarik 'gehienetan' parte hartzeko gaitasuna, 1983); orain dela hamasei urte bezalaxe.

Erabilpena hutsaren hurrena da. Galdera hau egin zitzaizen inkestatuiei: «gaelikera erabili al duzu inoiz joan den astean?». Eta erantzuna hau izan zen: % 5ek baietz, 'beti' edo 'maiz'...

Telebista 'nazionalak', bestalde, egunean 10 minutuz erabiltzen du gaelikera (eta hau bi kanaletako ahulenean); gehi ordubete edo ordu pare bat astean magazine modura. Hitz batez, bi orduz astean.

Ikasketak amaitzean lehen gaelikera-zihurtagiria behar zen. Hori 'kaltegarria' zegoelakoan, kendu egin zuten. Geroztik askoz ere gutxiago ikasten da nazio-hizkuntza (hizkuntza erabiltzeko gai direnak 10 aldiz ugariago dira eskola gaelikeraz haurretan ikasi dutenen artean, gaelikera «bortxatu

gabe» ezagutu dutenen artean baino).

Beste ereduak erabateko porrota izan dute (egunean ordu-beteko eskola-sistemakoek bereziki). Are 13 urtez gaelikera bide horretatik eskolatu direnen artean, hizkuntza ikasi dutenen kopurua 'negligible' agertzen da.

Gauza ezagunak, beraz, eta hamaitz aldiz errepikatuak. Irlanda Askatuak *osoki frakasatu* du hizkuntzaren alorrean. Irlanda anglofonia da erabat; inperioko probintzia bat.

Okerrena, ordea, Edwards-en liburu beldurgarrian ongi somatzen zenez (*Language, diversity and identity*, 1984), eiretarren 'errebbisionismo' lotsagalduan datza, ene ustez. Eta honi buruz ezin mamitsuagoa da Hilary Tovey-ren artikulua: «The state and the Irish Language: the role of Bord na 'Gaeilge'». Eta oso sintomatikoa da, era berean, Jeffrey Kallen-ek «Hiberno-English» delakoaz idatzi duen saio-txoa. Denak adierazten du funtsezko aldakuntza bat Eiren. Gauzak prest daude aurki nazio-hizkuntzari agur borobila goitik eta behetik emateko.

Orain dela hogeitatu bat urtez geroztik, hizkuntzaren errebbindikazioa «is no longer a serious goal». '*Rito*' huts bihurtu da Dublinen; «Irlanda batua» aldarrikatzea '*rito*' hutsal bihurtu den bezala. Gauza horiek, *esan* egiten dira oraindik; baina denek dakite hitz hutsak direla. Eta ez dagoela zinez ezer lortzeko asmo-izpirik ere. *Fartsa nagusitu da*, hitz batez.

Eta interesgarria da eiretarrek jarraitu duten bidea gogoratzea. Lehendabizi, orain dela hogeitabost bat urte, 'askatasuna'ren aldeko mogimendu bat plazaratu zen: *Language Freedom Movement*, ingelesaren defentsan praktikan. Eskubide *personalen* alde,

hitz batez: 'goitik' 'inposatu' nahi zitzaienaren aurka borroka ahal izateko... 'askatasuna'...

Alde batetik, 'irlandatasuna' zer den 'berrikusi' beharra azpimarratu zen. Irlandaren *batasuna* (bi Irlanden *batuketa*, zehazkiago esateko) eta Irlandaren *gaelikotasuna* jarri dira zailantzan. Badago, diote, haserako abertzaleek zekarten ideia hura (aski dugu Pearse gogoan hartzea); eta badago gaurko irlandarrek daukatena. *Biga dira*, ez bat. '*Pluralismoa*' behar da, beraz. Denak dira irlandarrak, ez haserako abertzale haiek bakarrik.

Hots, diote, Estatu ofiziala 'atzeratuta' gelditu da, ez da egokitu, ez da eguneratu. Eta orain *inposaketa* hutsaz nahi du gobernatu. Gaelikoaren pizkundearen kontrako mogimenduak, halako kutsu 'anarko' bat hartu du: hizkuntza nazionalaren kontra-koak, *Estatuaren inposaketen* aurka mintzo dira (!).

'Gairiditurik' dauden 'sasi-arazo' horien kontra, belaun berriek «economic expansion» delakoa daukate gogoan eta bihotzean. Kaletarrak dira, hirietan bizi dira; kostaldean orain suntsitzen ari den baserritar- eta arrantzale-mundu hori ez dute ezagutu, eta ez dute maite. *Askatasuna nahi dute*, eta kitto.

Eskabideen hizkeran ere nabari da atzerakada hori: lehen nazio-hizkuntza, *gaelikera*, berriro ere *Eire Askatuaren mintzabide* bihurtzea aipatzen zen. Orain ez. Orain *gaelikeraz bizi nahi* duten *eiretarren eskubidea* aipatzen da. Ausartenak «minority language»tzat hartzea proposatzen dute; eta nazio-hizkuntza oraindik galdu ez dutenak, «minoritary»tzat hartzea ...

Hizkuntza 'sinbolo' bihurtzea proposatzen dute gehienek. 'Sinbolo' hutsa, jakina; funtzio 'ritualez' hornitua. Erabilpenak ez du horrekin ezertxo ere ikusi behar: kalean ez erabilita ere, Eireren *sinboloa* izan daiteke. Ideia honek aurrerapausu gaitzak egin ditu azken urteotan.

Eta falta zen ginga ere erakutsi dute: «Hiberno-English»arena. Alegia, Irlandan bi nazio-hizkuntza omen daude: *gaelikera*, jakina, batetik; eta «Hiberno-English» deritzana, bestetik. Alegia, Irlandan sortu den ingeles-mota berezia, ingeles *dialekto* berezia zehazkiago. Hauxe da Kallen-ek zehazki aztertzen duen fenomeno. Ideia ez da gauzatu; baina dialektalismoak, bai Irlandan eta bai Afganistanen, berez sortzen direnez, *gaelikerak* baditu orain bi etsai: ingelesdunak, batetik; eta Hiberno-Ingeles horren aldeko sutsuak, bestetik...

Ez da profeta gaitza izan behar etorkizuna somatzeko: Irlanda *gaelikodunarenak* egin du. Ez du hau inork aitortu nahi, noski, mende haseran eiretar abertzaleak Britainia Nagusiaren aurka altxa zirenean, inork ez baitzuen zalantzan jartzen *Eire Askatua gaelikoduna* izango zenik. Mintza bekgu O Riagáin bera: «there is yet no indication that either the *Irish Government* or the *public* wishes to officially abandon the task of trying to maintain *their minority language*» (arretaz irakur: 'nazio-hizkuntza', 'gutxiengo-hizkuntza' bihurtu da...).

Besterik behar al dugu *Eire*-ko nazio-hizkuntzaren egoera eta etorkizuna somatzeko?

Txillardeg